

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udalaren landa ondasun higiezinaren luberritze tasaren 2024ko errola fiskalari

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko uztailaren 20an egindako bilkuran, behin-behineko onspena eman zion udalaren landa ondasun higiezinaren luberritze tasa ordaindu behar dutenen 2024ko errolari. Onespen erabaki horren berri (2024/S03.02.06.01/5 espedientea) 2024ko uztailaren 1ko ALHAOn (73. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da. Horra hori argitaratzen da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Udalaren landa ondasun higiezinak luberritzeagatik ordaindu beharreko 2024ko tasa 2024ko azaroaren 1etik eta abenduaren 31 bitarteko egun baldinuztan (biak barne) ordaindu ahal izango da borondatezko epean.

Ordainagiriak helbideratuta ez dauzkaten zergadunek udaletxeko hiritarren kutzazainean eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dute zerga hori, pasabide horretara udalaren web orriaren bidez (<https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/ogasuna-eta-zerga-bilketa/ordainketa-pasabidea>) edo Eusko Jaurlaritzaren "Mipago Wallet" aplikazioaren bidez sartuta. Kobrantza aldia hasi baino 15 egun lehenago arte onartuko dira helbideratzeak.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrek; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2024ko uztailaren 26a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA